Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tere Garai Larruzea

Berriz, Bizkaia (1930)



Aurkibidea

Biografia



Gernikarra izatez. Gazterik joan zen Berrizera, hemezortzi urterekin Pedro Juan tabernan hasi zen lanean eta. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an, Karmen Arostegirekin eta Niceta Zabalarekin batera.

Zintak

BRZ-058

- **Proiektua**: Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gerenabarrena, Maite
- **Data**: 2006-01-01
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Gerenabarrena, Maite

Pasarteak

1. Olakuetako etxeak

- **Erref**: BRZ-058/003
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:02:44. **Bukatu**: 00:06:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Olakuetan lau etxe ziren: Pedro Juanena, Abarketeruena (Esteban Arostegi zen abarketagilea), Pantaleonena (bere aitaginarrebaren izenetik datorkio etxeari izena; errota zuen etxeak) eta Ladrilleruena (Nicetaren aitak adreiluak zela egiten zituen azaltzen du). Ariznabarretana etxea ere bazegoen.

2. Angel Gaztelurrutia ferratzailea

- **Erref**: BRZ-058/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:08:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:
Olakuetan ferratokia zegoen; Angel Gaztelurrutia zen ferratzailea. Zela lan egiten zuen azaltzen dute. Abereak sendatzeko erremedioak ematen zituen Angelek. Inazio izeneko bat ere izan zen ferratzailea.

3. San Antonio eta ingurua zelakoak ziren

- **Erref**: BRZ-058/005
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:08:07. **Bukatu**: 00:12:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Olakueta auzoko argazkiari begira daude. San Antonio zelakoa zen azaltzen

dute zehatz. Auzoko etxe berriei eta bideei buruz berba egiten dute. Gorago Txaparrona zegoen eta aurreko aldean palazioa. Forjari eta palazioari buruz berba egiten dute.

4. Palazioa eta ingurua zelakoak ziren

- **Erref**: BRZ-058/006
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:12:03. **Bukatu**: 00:15:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Palazioaren alde batean farmazia zegoen eta bestean denda. Errepidea egiteko palazioa bota egin zuten; nor bizi izan zen han kontatzen dute. Plazan Renobalesen etxea zegoela diote, eta segidan lehengo Pantaleonena. Eskolak eta frontoia aipatzen dituzte, baita probatokia ere. Berrizko limonada lantegia ere aipatzen dute.

5. Bizikleta eta limonada lantegiak

- **Erref**: BRZ-058/010
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:21:21. **Bukatu**: 00:22:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:
Bizikleta lantegia zegoen; ugazabak eibartarrak ziren. Limonada lantegi barruan egonda daude; lorategia zeukaten. Limonada lantegiko jabeak eta bazkideak aipatzen dituzte.

6. Berrizko eskolak

- **Erref**: BRZ-058/013
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:25:28. **Bukatu**: 00:28:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Zein eskolatan ibili ziren kontatzen dute. Anekdota bat kontatzen dute, txakurra kartzelan eduki zutenekoa. Olakuetakoa, udaletxekoa, Sarrian, Andikoan, Uriben eta Miotan zeuden eskolak. Hamalau urtera arte ibili ziren. Entziklopediarekin denetarik ikasi zuten.

7. Umetako jolasak

- **Erref**: BRZ-058/014

- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:28:18. **Bukatu**: 00:29:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Sokan, korroka, txirikilan, lapurka, "zelemina"n, tronpan, diabolora, pilotan, palan... ibiltzen ziren olgetan.

8. Denak pobre

- **Erref**: BRZ-058/015
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:29:16. **Bukatu**: 00:30:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Egunerokoan abarketak eta gomazko zapatak erabiltzen zituzten. Orduan denak pobre ibiltzen ziren. Erregeetan laranjak oparitzen zizkieten. Trapuzko panpina handi bat zeukan etxean hiztunetako batek.

9. Nicetaren aita Frantziara ihesi, Karmen Karrantzara

- **Erref**: BRZ-058/017
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:32:49. **Bukatu**: 00:34:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Nicetaren aita Frantziara joan zen ihesi, heriotza zigorra ezarri ziotelako. Bost urte zituela ezagutu zuen aita. Umeak zirenez, ez dira asko akordatzen. Karrantzara behi eta guzti joan ziren Karmen-eta; bertako udaletxeak egiten zien harrera.

10. Bizikletan, asto gainean eta mando gainean komeriak

- **Erref**: BRZ-058/024
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:48:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Bizikletan ikasi zuenekoa kontatzen du hiztun batek. Hiztun hori bera, esnedunak astoa lotuta lagatzen zuenean, asto gainean ibiltzen zen; harrapatu zuenean, haserre egin zionez, hurrengo aske laga eta baserrira

bidali zuen astoa. Mando gainean zebilela gertatutakoa pasarte barregarria kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com